

1996ko EKAINAREN 18ko URJENTZIZKO BILKURA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamaseiko ekainaren hemezortzian, gaueko bederlatziak direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz; Ramon Bengoetxea Altuna Udalkideak, ezinezko zaiola agertzea adierazten du; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Urjentzizko Bilkuran bildu dira, gai hau erabili delarik:

URJENTZIZKO BILKURAREN ARRAZOIA

Alkateak, hitza harturik dio: Tratatu nahi den gaia benetan presazkoa denez, Bilkura honetan, urjentziz gai hau tratatzea proposatu du:

ZINEGOTZIEN DIMISIOA

Arazo propioak direla medio, INAXIO OLAETXEA KARRERA eta JULIAN ZUBELDIA AIERBE Zinegotziek, beren kargutako dimisioa aurkeztu dute.

Aldi berean, Herri Batasunaren Udal Hauteskundeetarako ordezkoen zerrendan bostgarren agertzen den, ANA EDERRA IRURZUN Andreak, uko egiten dio zinegotziaren kargua hartzeari.

Horren arabera, eta zerrendari jarraituz, JUAN MANUEL IBARGUREN ETXEBERRIA eta MARIAN OLANO ZABALA Jaun/Andreak zinegotzi karguetarako izendatu eta horren berri, Hauteskunde Zentraleko Juntari jakineraztea, proposatzen da.

INAXIO OLAETXEA KARRERA eta JULIAN ZUBELDIA AIERBE Zinegotzien dimisioa, ANA EDERRA IRURZUNen uko egitea, eta JUAN MANUEL IBARGUREN ETXEBERRIA eta MARIAN OLANO ZABALA Jaun/Andreen izendapena aho batez onartu da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du,